

1995eko IRAILAK 13

LEZOKO KULTURAREN TERMOMETROA

Herri baten kultura egunero egiten da, jakina! Baina herri guztien bizikeran izaten dira egun bereziak. Horietako bat izaten dugu Lezon Santakruz bezpera, aipaturiko egunean Lezorekin eta bere kulturarekin loturik dauden zenbait ekitaldi egiten direlako. Iazko irailaren hamahirua berezia izan zen, ohizko ekitaldiei beste zenbait ekitaldi gehitu zitzaizkielako, aipaturiko eguna Lezoko kulturaren termometroa bihurtuz. Errepasa ditzagun banan banan aipaturiko ekitaldiak eta beraien protagonistak:

1.- XXVI. "Elias Salaberria" pintura oroitaldia

Danok dakigun bezala, urtero ospatzen da herriko seme izan zen Elias Salaberria pintorearen omenezko oroitaldi hau. Garai batean oso ospetsua izan zen Gipuzkoa mailan eta baita Euskal Herri osoaren mailan ere. Azkeneko zortzi urteetan berpiztuz joan da eta iaz oso maila handia berreskuratu zuen. Oroitaldi 94 margolan aurkeztu ziren helduen mailarako eta lau gazte mailarako. Epaimahaia Pello Alberdi, Juan Jose Altuna eta Bingen de Pedrok osatu zuten, eta oroitaldian aurkeztutako margolanen kategoria handia aipatuz gero, sariak banatzeari ekin zioten.


Heldu mailan lehenengo saria Oscar Barreras lasartearrari eman zioten, "La escalera como ejemplo de orden" izeneko margolan koloretsu eta planuanizdunari zegokion ordaina emanaz. Bigarren saria Iñigo Fernandez de Nograro-ren "Indar pilulak" izeneko koadroari eman ziotelarik. Herritarren mailan, saria Lander Zurutuzaren "Altxor Uharte" izeneko koadroari eman zioten. Eta gazte mailan Isabel Gaiztarroren "Gudamendi" izeneko paisiari.


Sari banaketa jendez gainezka zegoen Jaizkibel-Azpi herri eskolako aretoan egin zen, eta bertan egon ziren Mikel Arrizabalaga alkatea eta Jone Salaberria kultura zinegotzia.

ELIAS SALABERRIA

XXVI. PINTURA OROITALDIA
LEZO



Antolatzailea / Organiza  LEZOKO UNIBERTSITATEKO UDALA

	• kutxa fundazioa	• Euzkoak donostia kulturen
	• fundación kutxa	• gazte-ekintza
		• obra social
		• de la casa gipuzkoa san sebastián

Epaimahaia Pello Alberdik, Juan Jose Altunak eta Bingen de Pedrok osatu zuten. Heldu Mailako saridunak Oscar Barreras eta Iñigo Fdez. de Nograro izan ziren. Herritarren lehenengo saria Lander Zurutuza eta Gazte Mailako lehenengoa: Isabel Gaiztarro.

2.- Santakrutzetako egitarau liburuxkarako azal lehiaketa

Aurrekoarekin batera, Santakrutzetako egitarau liburuxkan azal moduan ipintzen den azalera-ko antolaturiko lehiaketan sariduna aipatu zen: Maria Jesus Usabiaga. Maria Jesusek bere ahizpa Gemmarekin batera, aurten ikusi ahal izan dugun azala egin du. Ikerne Zaratek iraileko 13rako EGIN egunkariak egin zuen gehigarrirako egin zien artikuluan aipatzen denez: "... kartel honetan erabili duten teknika akoarela izan da eta honetarako arrazoia



M^a Jesus esta Gemma Usabiaga ahizpak izan ziren Egitarau-azalerako lehiaketan irabaztunak.


metodo hau gehiago menperatzen dutela da. Kolore biziak betetzen dituzte bi gazte hauek landutako txoko guztiak, eta kontrastea bilatu dute beti ere ikuslearen begirada nahasia harrapatzeko".

Artikuluaren beste paragrafo batean honakoa irakur daiteke: "Gemmak dioenez, kartel honetan Lezon adierazgarriak diren gauzak bateratu ditugu, halanola herriko sarreran dagoen aingura, herriko armarrria, udaletxearen ingurua, ... Lezo modu globalean aurkeztu nahi izan dugu". Gure zorionik beroena Maria Jesus eta Gemma Usabiagari.

3.- Patri Urkizuren "Zoazte hemendik"! Liburuaren aurkezpena

Ordu erdi beranduago, 8,30etan alegia, eta Udaletxeko Biltzar Aretoan hasiera eman zitzaion bertako semea den Patri Urkizu idazle oparoaren "Zoazte hemendik"! Izeneko elaberriaren aurkezpenari. Udaletxeko aretoa bete bete zegoen, jendez gainezka, eta aurkezpeneko mahaian Patriren bi aldeetan Mikel Arrizabalaga Lezoko alkatea, Lander Zurutuza herriko liburu-zain eta historialaria, Gorka Arrese "Susa" argitaletxeko ordezkaria eta Koldo Eizagirre euskal idazlea, pasaitarra bera, zeuden.

Zurutuzak Urkizuren lanak eta gora-beherak aipatu ondoren, Koldo Eizagirrek hartu zuen hitza, Patriren lanen laudorioa eginez eta Lezok baduela bere jakintsua esanez amaitu zuen. Ondoren Gorka Arresek eskerrak eman zizkion Patriari euskal literaturaren barruan egindako lanengatik. Arrizabalaga alkateak ongi etorria eta adiskidantza eskaini zizkion, eta bukatzeko Urkizu berberak hartu zuen hitza. Aurrekoen laudorioak gehiegizkotzat jo ondoren, barkame-na luzatu zien lagunak izaki ulertzen zuelakoan. Eta gero liburuaren nondik norakoak adierazteari ekin zion:



Patri Urkizu "Zoazte hemendik" izeneko liburuaren aurkezpena egin zuen.



Patri Urkizuren liburuan, erreketek Lezon sartu ziren 1.936ko Santakrutzen berri ematen zaigu.

“Nobela historikoa da eta aldi berean nobela autobiografikoa, nire aitaren bizitza alegia, norbaitek berea ez den autobiografia idaz dezakeen neurrian behintzat. Nire aita orain dela hamar urte hil zen eta bertso batzuk utzi zituen bere bizitza kontatuz edo gutxienez aitorten batzuk eginez. Nik biografia horren zati bat hartu dut nobelarako gai bezala: 36ko gerrarekin hasi, ihesa, atzerria eta itzulera arteko garaia alegia”.

Aipaturiko elaberrian erreketek Lezon sartu ziren Santakrutz bezperako irailaren hamahiru goibel haren berri ematen zaigu. Aurkezpena izan zen egunean 58 urte ziren ekintza trajiko hura gertatu zela. Amaitu aurretik, Patri Urkizuk Lezoko Udalarari eskatu zion aintzat hartzea herriko historiaz aritzen diren gazteak, behin betikoz Lezoko herriaren historia egin ahal izan dezaten. Entzuleen artean, HB, EA eta EAJko zinegotzi

eta zinegotzi ohiak ikus zitezkeen: Iñake Urrestarazu -alkatesa izana-, Mirari Rekalde, Jesus Mari Martiarena, Aitor Sarasola -alkate ohi-, Jone Salaberria, Karnele Legorburu, Melintxon Garmendia, Argiñaneko Martxiel Legorburu, Joxe Luix Agirretxe,... Lezoko elkarte eta herri erakundeetako ordezkariak, eta era guztietako herriko seme-alabak. Bukaera aldean Patrik liburuaren eskaintza egin zien honela eskatu zioten guztiei. Ekitaldi ederra liburu eder batentzako.

4.- Zabarre pirataren itzulera

Iaz hirugarren aldiz Zabarre lezoar pirataren itzulera burutu zen. 9,30etan ongi etorria eman zitzaion Lezoko kaian, eta ondoren lagundu zitzaion bere etxeraino (Kale Nagusia -5eko Zabarre edo Koartela izeneko etxea alegia). Behin bere etxean, bertako balkoitik irakurri zuen ohitura bihurtzen ari zaigun pregoia. Ekintza hau izugarritzko arrakasta ari da hartzen, eta herria piratez betetzen zaigu Santakrutz bezpera guztietan. Hamarretan Piraten afaria izan zen Lezo-Haundiko zuhaitzian.



***Zabarre “pirata”
Lander Zurutuzaren arabera.***

5.- ALLERRUren DANBORRADA

Egunari agurra emateko Santakrutz bezperan ohitura den danborrada kaleratu zen. Ekitaldiz bertako Santakrutzetan hauxe izango da, sokamuturrarekin batera, lezoarrok gehien maitazen duguna. Danborradak kolorea eta erritmoa bait dakartzki, eta beraiekin batera horren lezoarra den alaitasuna. Aurrera Allerru, eta aurrera Lezo!

Zabarreko